

# Uraren kontsumoa

## HELBURUAK

- Ura ez kutsatzearen garrantziaz eta uraren erabilera okerraz jabetzea.
- Ur-kontsumo arrazionalerako ohitura arduratsuak barneratzea.

## Jardueraren garapena

Erantsitako fitxak erreferentziatzat hartuta, uraren zikloari eta uren kutsapen indiskriminatuari buruzko ipuin bat kontatu ahal diezue ikasleei.

*Hiru ur tanta* ipuina proposatzen dizuegu. Hiru tanta adiskidek hodeietatik erreketara eta hortik itsasora egiten duten bidaia kontatzen du. Hauxe izan liteke kontaketaren ikurritza: *Ibaiak mintzatuko balira...* Ibaietako urak zikintzeak dakartzan ondorioak ulertarazteko istorioa da.



**Iturria:**
**Kontsumoa // Consumo. Curriculum materialak // Materiales curriculares Haur Hezkuntza 2. zikloa // Educación Infantil. ciclo 2º**
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria-Gasteiz, 1993.